

txintxarri

GIZARTEA

Sanpedroetako
egitaraua aurkeztu
dute udalak eta
eragileek / 2



Auzolana eta dibertsioa, eskutik helduta

Teresategi mendira pozik itzuli da Teresa
Sorgiña, Zabaletako festez gozatuta / 8-9

TXINTXARRI

GIZARTEA

Herriko errepideak hartu dituzte Ford etzeko autoek eta euren gidariek / 7



TXINTXARRI

KIROLA

Donostia Arraun Lagunak-ek Euskadiko bandera ere Lugañenera eraman du / 10

KIROLA

Eguzki AFko taldeak ederki lehiatu dira 14 eta 16 urtez azpiko Espainiako txapelketan eta Euskal Kopan / 12

Albia

BEILATOKIA ERRAUSKETA-LABEA REKALDE BERRI

Beste agur bat posible da

Utzi zeure emozioak sentitzen.
Gu arduratuko gara gainerako guztiaz.

Hileta zerbitzu berritzaileak
Zeremonia pertsonalizatuak
Etengabeko arreta emozionala

900 24 24 20

24 orduko arreta
albia.eus



Egitaraua prestatzerako orduan herriko eragile ugari izandako prestutasuna eta emandako laguntza nabarmendu dituzte udal ordezkariak. TXINTXARRI

Txintxarri

Berriki omendua nor izango den eta egitarauaren eskuorria zein karteak ilustratuko duen iragarri ostean, hurrengo urratsa egin eta egitarauaren beraren xehetasunak eman dituzte udal gobernuko ordezkariak, ekimenetako asko antolatzeaz arduratuko diren herriko eragileetako kideekin (Aterpea, Biyak Bat, Extremadurako Etxea, LOZET, Ostadar SKT, Scooter Club Euskadi, eta Ttakun Kultur Elkarte) batera. Topaleku ohikoenean elkartu diren arren, Okendo plazan alegia, Agustin Valdivia alkateak eta Jaiak departamentuko zinegotzi Txus Alonsok argi utzi dute festak deszentralizatzearen alde egin dutela aurten ere eta enparantza horrez gain erabiliko dituztela beste gune ugari ere, hala nola Andatza, Isla eta Jaizkibel plaza edota Oriarte Landaberi institutuko patioiko gazteen gunea.

Duela zenbait urte erabaki zutenari jarraiki, aurtengo sanpedroek ere gozatzeko bost egun izango dituzte, kasu honetan, hilaren 26tik 30era. Haurren txupinazoarekin lehertuko da jai eta su festarekin bukatuko da, baina ez Andatza plazan, Sasoeta LH ikastetxeko patioan baizik. Agerraldian, "musika programazioaren kalitatea" nabarmendu zuen Alonsok. Ez alferrik, programa osatzera bideratutako 320.000 euroetatik erdiak baino gehiago alor ho-

GIZARTEA

Bost egunetarako ehun jarduera baino gehiago prestatu dituzte

Hilaren 26etik 30era ospatuko ditugu sanpedroak. Ohi bezala, haurren txupinazoarekin lehertuko da jai eta su festarekin bukatuko da. Suziriak, ordea, ez dituzte Andatza plazatik jaurtiko, Sasoeta LH ikastetxeko patioetik baizik

rretara bideratu baititu udalak: 173.777,12 euro taldeak kontratatzeko eta beste 60.182,75 euro behar teknikoetarako. "Izen sendoak eta herriko artisten presentzia uztartu ditugu aurten ere", gehitu du. Kontzertuak emango dituzten musikarietako batzuk izango dira Süne, Modus Operandi, Chambao, Mirari, La Orquesta Mondragon, Mucedades edota gure herrikoak diren JAGOBÁ, Hazas, The Noisemakers eta Ibai Berriak taldeak. Kaleko animazioa indartu dutela ere azaldu du, ez emanaldi

Egitaraua prestatzera 320.000 euro bideratu ditu udalak; batez ere, musika taldeak kontratatzera

kopuruagatik, horien "kalitateagatik" baizik. Jaiak giroteaz arduratuko dira Oaintxe in deu! edota Arranopola txarangak (lasarteoriatarak bi kuadrilla horiek ere), Tio Teronen Semeak eta Circus Feria ekitaldia aurrera eramango duen Bambolea konpainia. Kanpoko ikuskizun horiek ekartzeko 28.262,10 euro ordaindu ditu udalak.

Musikarekin eta euskal kulturarekin zerikusia duen beste ikuskizun tradizionala da San Pedro egunerako (hilak 29) antolatu duten bertsolarien jaialdia. "Aurten, aurreneko, doakoa izango da sarrera. Hori bai, bertaratzeko asmoa dutenek hilaren 15etik aurrera jaso behar dituzte gonbidapenak kultur etxeko leihatilan", jakinarazi du Alonsok. Oraingo honetan Maddi Lasa, Ane Labaka (gure herrikoak dira horiek biak), Onin-

tza Enbeita, Andoni Egaña, Maider Arregi eta Maialen Lujanbio ariko dira bertsoetan, Amaia Agirrek jarriko dizkien gaiei erantzuten.

Egitarauak, etxez etxe

Banatzailak eskuzko egitarauak etxez etxe partitzen ari direla jakinarazi dute Alonsok eta Valdiviak. Publizitaterik gabeko eskuorria landu dutela zehaztu du Jaiak departamentuko zineziak, herritarrentzat "erakarriagoa, garbiagoa eta erosoagoa" izan dadin. Inprentara bi-

Jaietan gerta daitezkeen erasoen aurkako zenbakia 688 75 26 03 izango dela zehaztu dute

dali aurretik zuzendu ez zituzten bi akatsen berri eman dute eta barkamena eskatu dute sor ditzakeen eragozpenengatik: "Udal Musika Eskolako kideen bigarren kontzertua hilaren 17an izango da, 18:30ean, eta ez 18an; bestalde, Ostadar SKTren bola eta toka tirada 27an egingo dute, 16:00etatik 17:00etara, eta ez hilaren 22an", adierazi dute.

Orotara, ehun jarduera baino gehiago prestatu dituzte herritar guztiak goza dezaten sanpedroek hilaren 26tik 30era. "Programako jarduera asko zuzenean sortzen dira beren lanetik eta lankidetzatik, eta definitzen dituen izaera parte hartzailea bizirik mantentzea bilatzen duten jaietako ezinbesteko protagonista bihurtzen dira", nabarmendu du Valdiviak.

Erasoen aurkako zenbakia

San Pedro Jaietan kalera irteko deia egin dute Valdiviak eta Alonsok: "Gozatzera, elkarrekin bizitzera eta oroitzen ahaztezinak sortzera, betiere elkarrenganako errespetuan eta bizikidetzak baketsuan oinarrituta". Ildo horretatik, festetan gerta daitezkeen aurkako erasoen telefono zenbakia 688 75 26 03 izango dela ohartarazi dute. Udaltzainekin harremanetan jartzeko, berriz, 943-36 24 42 zenbakira hots egin behar dute. Horrez gain, Puntu Morea egitasmoa martxan izango dela azaldu dute: "Ospakizun eremuetan ematen den indarkeria matxistaren prebentzioa eta informazioa ematen duen gunea da. Gaubegi-ko langile espezializatu eta sentsibilizatuek kudeatzen dute". Hilaren 26an, 27an eta 28an zabalduko dute, Pablo Mutiozabal 2 kalean, 00:00etatik 03:00etara.

Agerraldiarekin amaitzeko San Pedro Jaiak hasi aurreko ekimenak zeintzuk izango diren kontatu dute. Biyak Bat egoitzan, adibidez, joko ugari eta gimnastika erakustaldia aurrera eramango dituzte hilaren 12tik 25era. Bestalde, ikasturte amaierako emanaldiak egingo dituzte Al-boka Abesbatzak, Zero Sette Akordeoi Orkestrak, Udal Musika Eskolak eta Erketz EDT dantza taldeak; hilaren 13an, 14an, 16an eta 17an eta 20an izango dira, hurrenez hurren. Scooter Club Euskadiren rallya eta San Joan bezperako ospakizuna ere nabarmendu dituzte antolatzaileek.

GIZARTEA

Motorzaleen bilgune bilakatuko da Lasarte-Oria hamabigarren aldiz

Hilaren 19tik 21era aurrera eramango dute jardueraz betetako topaketa

Txintxarri

Vespa eta Lambretta marketako ibilgailuak gidatzen dituzten 70 bat zale bilduko dira herrian hilaren 19tik 21era, orotariko ekimenekin prestatutako egitarauaz gozatzeko. Scooter Club Euskadi elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta dute topaketaren hamabigarren edizioa, lankidetzan. "Udalerriko bizitza dinamizatzeko hitzordu gisa" finkatu dela azpimarratu dute antolatzaileek.

Scooter Club Euskadi elkarteak 26 urte daramatza Vespa eta Lambretta etxeetako motorrekiko zaletasuna hara eta hona eramaten. Orduan hasi zen rallyak antolatzen eta azken 11 edizioak Lasarte-Orian egin dituzte. Aurkeztu dutena, hortaz, hamabigarrena izango da. Ekimen nagusiak aurreko urteetako berberak izango dira, helbu-



Urtero moduan, Ventanas Alcar saltoki aurrean aurkeztu dute egitaraua. TXINTXARRI

rua baita herritar guztiak kultura eta bizitzeko modu horretara erakarri bitartean partaide direnek asteburupasa ederra egitea. Eragile horretako lehen-dakari Isa Lopezek bizilagun oro (gaztetxoena, batez ere,

horiek ere "primeran" pasa ohi dutelako) animatu du parte hartzera eta eskerrak eman dizkio udalari: "Erraztasunak besterik ez dizkigute ematen, batez ere azpiegiturari eta baimenei dagokienez".

Erakusketak, ibilaldiak, musika...

Hilak 19, ostirala

- **19:00etan, Donostia etorbidean**, motorzaleei harrera. Santxo tabernan egingo dituzte parte hartzaileen izen emateen tramitazioak.
- **21:00etan, Santxo-tabernan**, pintxo-pote afaria.
- **22:00etan, herrian barrena**, ibilaldia.
- **22:30ean, Buenetxea kafetegi-tabernan**, musika festa: DJen zuzeneko emanaldiak.

Hilak 20, larunbata

- **10:00etan, Okendo plazan**, motorren erakusketa.
- **11:00etan, Tiburtzio Artizar tabernan**, txalapartariak, barrikotea eta pintxoak.
- **12:30ean, Okendo atzealdetik abiatuta**, 80 kilometro inguruko ibilaldia.
- **15:00etan, Hernaniko Jauregi jatetxean**, bazkaria.
- **18:30ean, Andapa kalean**, motorren erakusketa eta haurrentzako zein helduentzako jokoak: azkarrenen edota mantsoenen lasterketak, oztopoak gainditzeko ibilbideak...
- **21:30ean, Buenetxea kafetegi-tabernan**, pintxo-pote afaria.
- **22:30ean, Buenetxea kafetegi-tabernan**, zuzeneko kontzertuak eta DJen emanaldiak.

Hilak 21, igandea

- **12:00etan, Arkupe tabernan**, motorzaleak elkartzea.
- **12:30ean, Arkupe tabernatik abiatuta**, ibilaldia.
- **13:00etan, Arkupe tabernan**, bermuta eta zuzeneko musika emanaldia.
- **14:30ean, Arkupe tabernan**, pintxo-pote bazkaria.

Lasarte-Oria "eremu tentsionatu" izendatzea, alokairuaren prezioa mugatzeko.


Etxebizitza eskuratzeko arazoa konpontzeko, **Euskadik plan bat du.**



eremutentsionatua.euskadi.eus



#EUSKADIBERRIA



ETXEBIZITZA ETA
HIRI AGENDA SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y AGENDA URBANA



KULTURA

Antzezlan gehienak oholtzaratuta, dantza emanaldiek hartuko dute asteburua

Bazkari herrikoiarekin eta dantzaldiarekin amaituko du topaketa Kukuka eskolak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Hilaren 8tik 11ra antzoki izan zena dantzaleku bilakatuko da 12an eta 13an. Ikasturtean zehar landutako ikuskizunak erakusten ari dira Kukuka eskolako ikasleak, kultur etxeko auditorioan, 24. Antzerki eta Dantza Astearen barruan. Gazteenetik hasi eta helduenetara arte, ederki moldatzen ari dira guztiak, atsegin dutena erakustek eragiten dien zirrararekin aurre egiten jendaurrera atera aurreko uneetako urduritasunari.


Garaikoetxea-Landaberi eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako ikasleak izan ziren aurreneko emanaldi egunetako protagonistak eta gai ugari landu zituzten antzezlanen bidez, ikus-entzuleei etxera joan eta tarte batez hausnartzeko arrazoiak emanda. Galdera batekin amaitu zuten, esate baterako, *Beste norbaitentzat* lana: "Eta zuk, nola jokatzeko duzu beste norbait zuri begira ari denean?". Ikasle talde bati azterketa sorpresa ezarriko dio irakasleak eta gazteak berehala ohartuko dira etsamina hori ez dela ordura arte egin dituztenak bezalakoa. Izan ere, aztergaia (eta kasu horretan, produktua ere bai) ez da Euskara, Historia edota Matematika, azterketariak beraiek baizik.

Egoera bitxi eta dramatikoak planteatu zuten beste antzezlan batean, *Leonardoren tailerreko abenturak* izenekoan. Kezkatuta dago maisua, urdin kolorea ez duelako inondik ere topatzen. Bila eta bila arituta ere, ezin aurkitu. Laguntzaileekin batera zeregin horretan ari dela, munduko agintariak hartutako erabakiaren berri izango du: kolore guztiak deuseztu eta grisa izango dela dena aurrerantzean. Arrisku horren aurrean, lortuko dute galdutako laguna topatzea eta koloreek gizarteari zein planetari ematen dioten balioa aldarrikatzea.

Astelehenetik ostegunera erakutsi zituzten antzezlan guztiak eta gaur zein bihar (hilak 12 eta 13) Euskal Dantza Sorkuntza landu duten taldeek orotariko



Lapurtutako lepokoaren misterioa argitu behar izan zuten 'Udaleku bitxia'-n. TXINTXARRI



Amarruaz jabetu ziren ikasle hauek; azterketa (eta produktua) beraiek ziren. TXINTXARRI



Mundua gris bilakatzeko tragediari aurre egin zioten Leonardok eta koloreek. TXINTXARRI

koreografiak erakutsiko dituzte kultur etxeko auditorioan. Orain arteko emanaldi guztietan bezala, aretora bertaratzen direnek ez dute sarreragatik ordaindu behar. Gaurko saioa 19:30ean izango da; biharkoa, aldiz,

12:00etan. Horren ostean, bazkaltzera joango dira Okendo plazara; 14:00etan hasiko dira menu goxoa dastatzen. Amaitutakoan, eserlekuetatik altxa eta dantza egin bitartean burutuko dute digestioa.



Saioaren ostean, talde argazkia atera zuten ikasleek eta udal ordezkariak. UDALA

GIZARTEA

Eremu publikoetan birziklitzeko gune gehiago jartzeko eskatu diete

Txintxarri

Gure herrian Lehen Hezkuntza ikasten ari diren 400 ikasle baino gehiagok hondakinen, landaredia eta energia gaiekin zerikusia duten alorrak jorratu dituzte amaitzek den ikasturtean. Ateratako ondorioak eta prestatutako proposamenak helarazi zizkieten udal gobernuordezkariei zeregin horretarako egindako ezohiko bileran, pleno aretoan. Ekimen hori Ingurumen Hezkuntzako Udal Programaren barruan egindako lanaren amaiera ekitaldia da. Ikasleek tokiko erakundeen funtzionamendua bertatik bertara ezagutzeko aukera dute, eta, aldi berean, udalerraren

eraikuntzan aktiboki parte hartzen dute.

Hauek dira ikasleek proposatutako neurri batzuk: eremu publikoetan birziklatu ahal izateko gune gehiago jartzea; bereizketa hobetzeko sentsibilizazio kanpaina gehiago egitea; arratoien gisako karraskarien ugaritzearen aurkako neurriak hartzea; natura guneak hobetzea eta areagotzea; dagoeneko erabiltzeko moduan dauden parkeak eta lorategiak hobe mantentzea; energia berriztagarriak sustatzen jarraitzea; edota eraikin publiko batzuen eraginkortasun energetikoa hobetzea. Programan parte hartu izana eta egindako lana eskertu zieten udal ordezkariak.

KULTURA

Indibidualismotik, kolektibora jauzi



TXINTXARRI

Txepeldunak antzerkiaren emanaldia egin zuen Lanku taldeak kultur etxean, hilaren 6an. Haur baten istorioa kontatzen du Iraitz Lizarragak idatzitako eta zuzendutako obrak. Izan ere, gaztetxoak partida bat galduko du eta haserretu egingo da. Pixkanaka, sumindura horrekin ahaztu eta pilotarekin adiskidetzen hasiko da, lehiakortasuna baztertzen. Indibidualismotik kolektibora jauzi egiteko deia luzatu zuten ikuskizun horren bitartez.

KULTURA

'Gaueko' mahai jokoa argitaratu ahal izateko 3.000 euro behar dituzte gutxienez


Maren Urkizu Urruzola herritarrak ondu du ekimena, "euskaratik eta euskaraz"

Txintxarri

Literatura eta jolasa uztartzen dituen proposamen berritzaile bat sortu du Maren Urkizu Urruzola lasarteoriatarrek: *Gaueko* mahai joko literarioa. "Sortzeko, berreraikitze, antzetzeko... espazioa eskaintzen duen jolas kooperatiboa, euskaratik eta euskaraz sortutakoa" dela azaldu du egileak eta 5 eta 8 urte arteko haurrei zuzenduta dagoela. Eneko Martiarena Lopetegi herriki-dearen laguntza artistikoa izan du. Egitasmo hori argitaratu ahal izateko baliabide ekonomikoak behar dituztenez, diru bilketa kanpaina abiatu berri dute *itsulapikoa.eus* atari digitalean.

Proiektuaren abiapuntua egilearen Haur Hezkuntzako Gradu Amaierako Lana da. Liburutegietan eta irakurzaletasunaren sustapenean espezializatuta dagoela, Urkizuk hutsune nabarmen bat hauteman zuen bai hezkuntza esperientzian bai egungo merkatuan ere. "Literaturaren lanketak ikuspegi akademiko eta zurruna du, oraindik ere, sarritan", azaldu du sortzaileak. Gaineratu du mahai jokoen merkatuak ez diela modu orekatuan erantzuten adin tarte guztietako pertsonen beharrei, ezta hizkuntza zein kultura aniztasunari ere.

Hori horrela, 5 eta 8 urte bitarteko haurrengan pentsatuz garatu du jokoa, txikienez zako egokitutako jokoen gabeziari aurre egiteko. Dena den, jolasak belaunaldien arteko zubiak erai-



'Gaueko' mahai jokoa nolako den erakusteko irudietako bat. GAUEKO

ki nahi ditu, nagusiei ere erronkan parte hartzeko gonbidapena luzatuta.

Ilustrazioen garrantzia

Proiektuaren atzean "oinarri teoriko sendoa eta merkatuaren azterketa luzea" daude. Urkizuk bere lehen zirriborroei itxura profesionalagoa emateko Adimen Artifiziala erabili bazuen ere,

5 eta 8 urte bitarteko haurrengan pentsatuta garatu du jokoa

argi zuen jokoa argitaratzeko unean ilustrazioak hezur-haragizko pertsona batek egindakoak izatea lehenetsi nahi zuela. Hor sartu zen jokoa Eneko Martiarena Lopetegi herriki-dea. Haur Hezkuntzako irakaslea izateaz gain, ilustratzen pasatzen ditu orduak, eta "gogoz" onartu zuen pertsonaiei bizia eta forma emateko erronka.

Egitasmo hori argitaratu ahal izateko diru bilketa kanpaina (3.000 euro behar dituzte, gutxienez) abiatu zuten atzo eta biek ala biek azaldu dutenez 28 egun iraungo ditu. Webgunea (gauekomahaijokoa.eus) eta Instagram kontua (@[gauekomahaijokoa](https://www.instagram.com/gauekomahaijokoa)) ere sortu dituzte.



LASARTE-ORIAKO LITERATUR TXOKOAK

KULTURA

Sarriugartekin elkartu dira

LGTBIQ+fobiaren aurkako eta harrotasunaren aldeko egunen harira antolatutako egitarauaren barruan Danele Sarriugarte idazlearekin elkartu ziren literatur txokoko eta Transmaribolloen elkarteko kideak. Idazle elgoibartarrak ondutako *Beste zer bait* lanaz mintzatu ziren giro ederrean.

EDUKI BABESTUA



Gustavo Quintero eta Lourdes Anza Muntteri AEK atarian. TXINTXARRI

EUSKARA

Euskara ikasteko eta herrian errotzeko bidea, Muntteri AEKn

Motibazio desberdinekin hasi baziren ere, Lourdes Anzak eta Gustavo Quinterok euskara erabiltzeko konfiantza eta ohitura irabazi dituzte Muntteri AEK euskaltegian

Txintxarri

Muntteri AEK euskaltegian elkartu dira Lourdes Anza eta Gustavo Quintero ikasleak. Donostikoa da lehena, eta herrian urteak daramatza bizitzen. Gustavo, aldiz, argentinarra da eta lehen urtez ari da eskolak jasotzen. Euskara ikasteko motibazio desberdinekin hasi baziren ere, biek bat egiten dute helburu berarekin: ingurukoekin harremanak euskaraz egiteko gaitasuna irabaztea.

Lau ikasturte daramatza Lourdesek Muntteri AEKn. Euskara hobetu nahi zuelako eman zuen izena, etxean ez baitu hizkuntza erabiltzeko aukera handirik eta galduta zuen praktikatzeko ohitura berreskuratu nahi baitzuen. Euskaltegian aurkitu duen giroa bereziki estimatzen du: "Lasai ikasteko aukera ematen du, azterketen presio handirik gabe". Urte hauetan ikaskideekin lagun talde sendoa osatu du, eta harreman eskolatik kanpora ere eraman dute.

Quinterok, berriz, ikasturte honetan hasi du bere ibilbidea euskararekin. Hasieran ez zekien euskaraz, baina pixkanaka ulertzen eta hitz egiten ikasten ari dela azaldu du. Lanean eta egunerokoan hizkuntzarekin topo egiten zuen

maiz, eta familiaren bultzada ere garrantzitsua izan zen pausoa emateko orduan. Esperientzia oso positiboa izan dela nabarmendu du.

Biek azpimarratu dute euskaltegian aurkitu duten hurbiltasuna eta ordutegiak egokitze ematen diren erraztasunak. Horregatik, euskara ikastea pentsatzen ari diren herritarrak animatu dituzte, hizkuntza ikasteaz gain pertsona berriak ezagutzeko eta herriko bizitzan parte hartzeko aukera ere eskaintzen duelako.

Hilaren 30era arte

Aurrematrikula egiteko epea zabaldu du Muntteri AEKk eta jakinarazi du horretarako azken eguna hilaren 30a izango dela, asteartea.

Ikasle berrientzat zein dagoeneko AEKn ari direnentzat dago zabalik, eta hainbat abantaila eskaintzen ditu: aurtengo prezioa mantentzea (HABEren eta Euskarabidearen dirulaguntzak dituzten ikastarotetan izan ezik), interesik gabeko ordainketa epe bat gehiago izatea eta taldeak osatzeko garaian lehentasuna izatea.

Informazio gehiago eskura daiteke 607 62 52 33 telefono zenbakira deituta edo lasarte@ae.eus-era idatzita.

GIZARTEA

Udalhitz berritzeko negoziaketara atxiki ez izana aurpegiatu dio ELAk udal gobernuari

Hilabete honetako asteazken guztietan mobilizatuko dira, 11:00etatik aurrera

Txintxarri

Lasarte-Oriako udal langileek euren lan baldintzen zein udaleko antolaketaren egoeraren berri ematen duen oharra zabaldu zuen ELA sindikatuak, hilaren 4an elkarretaratzea egitearekin batera. "Hilabete luzetan egindako aldarrikapenetan aurrerapenik ez egotea" salatu zuten: "Lasarte-Oriako udal gobernuak Udalhitz berritzeko negoziaketara ez atxikitze erabakia hartu du, langileen zein udaleko gainerako alderdi politikoei entzungor eginez".

Izan ere, apirilaren 20an, Udaltzak mozio bidez onartu zuen Udalhitz berritzeko negoziaketara atxikitzea EH Bildu, EAJ, Podemos eta PPren aldeko bozkekin. PSE-EEek, berriz, abstentzioaren alde egin zuten. "Eta ez hori bakarrik, ELAko ordezkariak bultzatutako eta



Hilaren 11n udaletxe zaharraren parean egindako elkarretaratzea. ELA GOIERRI-ORIA

langileen gehiengo zabalak babestutako sinadura biltzari ere muzin egin diote". Ondorioz, sindikatukoek zehaztu zuten, Lasarte-Oriako Udala EUDEL eta sindikatuen arteko negoziaketa horretara atxiki

ez den "EAEko udal bakarretakoa" da.

ELAko ordezkariak azpimarratu zuten gatazka ez dela Udalhitzen auzira mugatzen: "Udal gobernuak urteak daramatza langileen lan baldintzak zein udalaren barne

antolaketa hobetzeko proposamenei erantzun egokirik eman gabe. Konpontzeko gaien artean daude, besteak beste, telelana arautzea, barne sustapena, egiturazko lanpostuen hutsuneak betetzea, gehiegizko lan kargak eta lan osasuna, enpleguaren egonkortasuna, zenbait zerbitzuren berrantolaketa eta eros ahalmenaren galera gelditzea".

Horrez gain, langileek zein ordezkariak egindako proposamenak entzuteko "borondate falta gero eta nabariagoa" dela agerian jarri zuten: "Udaleko hainbat sailetan dagoen ezinegona areagotu egin da". Egoera horrek guztiak, gainera, herriarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatean zuzenean eragiten diola azpimarratu zuten.

Aferak "erantzun politiko argia" eskatzen duela esan zuten, "gaur-gaurkoz ikusten ez duguna". Eta udal gobernuak langileen aldarrikapenei muzin egiten jarraitzen eta lan baldintzak hobetzeko borondateak erakusten ez duen bitartean, langile asanbladak hilabete zehar asteazkenero, elkarretaratzeak egitea erabaki duela jakinarazi du, 11:00etan.

GIZARTEA

Haur sahararrentzat produktuak emateko azken egunak dira

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileko kideek gogorarazi dute hilaren 14a izango dela udan herrira etorriko diren haur sahararrei laguntza emateko azken eguna. 10 eta 11 urte arteko bost mutikorentzat janaria, arropa, jolasak eta garbiketa produktuak biltzen ari dira Biyak Bat egoitzan, Extremadurako Etxean, Gaztelekuan, Semblante Andaluz elkarteetan eta Udal Liburutegian. Horrez gain, saltoki ugari Saharako pulterak jarri dituzte salgai 2 eurotan; ostalaritza establezimenduetan, berriz, ekarpen ekonomikoak egiteko itsulapikoak topatuko dituzte bezeroek.

Laguntzeko prest daudenek eta informazio gehiago behar dutenek 656 77 81 97 telefono zenbakira deitu dezakete edo sahararekinlasarteoria@gmail.com helbide elektronikora idatz dezakete. "Keinu txiki bakoitzak zerbait handiagoa eraikitzen duelako... Izan haur hauen babesle!", aldarrikatu dute.


lagunkoia

plaza

Gero eta adintsuagoa den gizartearen inguruko doako jarduerak adin guztietako pertsonentzat

Espero zaitugu!
EKAINAK 16-17 | KURSAAL aurrean

www.lagunkoiaplaza.eus





Michelin Lasarte lantegiko aparkalekuan atera zuten topaketakoek talde argazkia. TXINTXARRI



Partaideei ongietorria egiteko, besteak beste, 'Aurrekua' dantzatu zieten. TXINTXARRI

GIZARTEA

Ford etxeko autoek eta horien gidariek hartu dituzte herriko errepideak

Bosgarren topaketa Lasarte-Orian aurrera eraman du Club Clasicos de Ford España eragileak. 62 gidari animatu dira parte hartzera eta goizetik iluntzera arteko egitarauaz gozatu dute. Eurak eta antolatzaileak gustura daude

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Goizean goiz juntatu ziren 62 auto parte hartzaileak, Andatza plazan, hilaren 6an. Ordurako, baziren dagoeneko hainbat kotxe han. Izan ere, ostiralean ailegatu ziren herrira gidari batzuk, eta gaua Lasarte-Orian pasa zutelarik, euren autoek gaua bera egin zuten. Apartatu aurretiko maniobrekin batera, argazkia atera zuten autoentzako *photocall*-ean. Ongietorriarekin batera, Aitonak okindegian gosaldtu zuten, egun osoko jardunaldiari begira indartzeko asmoz.

Ford kotxea izan ala ez, herritar ugari bertaratu ziren eta ederki aprobetxatu zuten autoak begiratzeko, kanpoaldetik zein barrualdetik. Klase, tamaina eta kolore sortarekin txundituta geratu ziren. Begirada gehienak ehun urtetik gorako ibilgailu batek bereganatu zituen.

Jarraian, Lasarteko zirkuitua egin zuten. Hernani, Urnieta, Andoain eta Errekalde zeharkatu bitartean, makina bat lagun izan zituzten ikusle, batez ere, Michelingo zuzengunetik fabrikara talde argazkia egitera sar-

tu zirenean. Goizeko txandarekin amaitzeko, lantegi horretako zenbait beharginek hitzaldi bat eskaini zieten enpresaren historiari buruz Manuel Lekuna Kultur Etxean. Tripak gosetuta zituztenez dagoeneko, kultur etxetik irtetea, hamaiketako egin zuten Andatza tabernan. Ondoren, Udaberri elkarte gastronomikoan bazkaldu zuten.

Bazkalostekoarekin hasteko opariak eta sariak banatu zituzten giro ederrean. Tenore horri helduta, primeran pasa zuten Andatza plazako kontzertuetan.



Kanpoaldea soilik ez, autoen barrualdea ere ikusi ahal izan zuten. TXINTXARRI



Auto klasikoaren artean klasikoena izan zen argazkiko hau. TXINTXARRI



Bazkalostean hasi ziren Andatza plazako kontzertuak. TXINTXARRI



Interesgarria izan zen hitzaldia. TXINTXARRI



Bazkaldu aurretik mokadutxoa jan zuten Udaberri elkarte kanpoaldean. TXINTXARRI

GIZARTEA

Asteburua ederki gozatuta, datorren urtekoen zain

Lierni A. Urdanpilleta-Iñigo G. Sarobe Pozarren itzuli da Teresategi mendira Teresa Sorgiña, auzotarrekin batera Zabaletako festez ederki gozatuta. Kontentu bueltatu da, eta lasai ere bai, herritik eta herriarentzat antolatutako jaiek orainaldi eta etorkizun oparoa dutelako. Asko hazi da auzoa azken urteetan eta, guztientzako moduko ekimenak antolatzea are erronka handiagoa bilakatu den arren, bizilagunek gogotsu heldu diote eta bikain aurrera atera dituzte aurtengo ospakizun egunak ere.

Aurreneko egunetan, batez ere, etxeko txikientzako ekimenak egin zituzten, hala nola haurren txupinazoa, apar festa, kamiseten serigrafia edo euren talentua erakusteko

lehiaketa. Horri esker, ostiral arratsaldean (hilak 5) Teresa jaitzi zenerako bero-bero zeuden auzotarrak eta ongietorri koloretsua egin zioten zaindaria-ri. Ekitaldi horretan, besteak beste, auzoan bizi diren Xumela koruko kideek irakurri zuten pregoia.

Hurrengo bi egunetan, goizean goizetik burutu zituzten adin tarte guztietako herritarrentzako ekimenak eta anekdotarik ere izan zen: dultzaineroak, auzoa esnatu bitartean, Martin Berasategiren jatetxeraino joan eta jabearekin atera zuten argazkia. Bestalde, gaur egun Zabaleta den bezalakoa izate aldera lan izugarria egin duten bizilagun helduenek omenaldi goxo eta hunkigarria jaso zuten.



Urtero lez, auzotarrak ongietorri bero eta koloretsua egin zioten Teresa Sorgiñari. TXINTXARRI



Haur bat, aurpegia margotuta. TXINTXARRI



Adarrarekin jotako doinuak ez ziren falta izan pregoiaren ekitaldian. TXINTXARRI



Zabaletarrak diren Xumela koruko kideek irakurri zuten pregoia. TXINTXARRI



Emanaldi bateratua egin zuten Porrotzek eta Jalguneko zein Maratoiko kideek. TXINTXARRI



Sorgin Dantza herrikoia. TXINTXARRI



Martin Berasategi sukaldariak dultzaineroekin argazkia atera zuen. BIXENTE BELTRAN



Zabaletako auzotar helduenei aitortza ekitaldi polita egin zieten. Amaitu aurretik talde argazkia atera zuten. TXINTXARRI



Pala eta frontenis final zirragarriak jokatu zituzten frontoian. TXINTXARRI



Dultzaineroekin batera atera ziren LOZET elkartearen erraldoi eta buruhandiak larunbatean. TXINTXARRI



Hertz taldekoak, egurrean, Gure Lasarte Zikiña-koek antolatutako topaketan. TXINTXARRI



Herri kirolen erakustaldia egin zuten Jokin Basozabalek eta Ander Etxeluzek. TXINTXARRI

Euskal Jaietako proba mistoa

Euskal Jaia irailaren 26an ospatuko dugu eta herri kirol erakustaldia izango da. Horren barruan kuadrilla, elkarte, eragile edo seikotea osatzen dutenen arteko proba mistoa egingo dute: trontza mozketa, txinga eramatea, lokotx lasterketa, pisu arrastaketa eta korrika saioa.

Seikoteak osatzeko deialdia luzatu dute. Momentuz, talde batek baieztatu du bere parte hartzea. Hain zuzen, aurreko asteburuan ospatu ziren Zabaletako Festetako Proba Mistoan garaile atera zen talde beltza. Zirikatzaile agertu dira gainera, eta, erronka bota dute euren aurka lehiatu nahi duten "elkarte, eragile edota kuadrillei". Izena emateko, parte hartu nahi dutenek antolatzaileekin jarri behar dute harremanetan aitor@kulturatelier.eus-era idatzita.



Patata tortilla txapelketako sarituak, antolatzailerak eta babesleekin. TXINTXARRI



Gogotik egin zuten lan proba mistoan parte hartu zuten taldeetako kirolariek. TXINTXARRI



ARRAUNA

Donostia Arraun Lagunak nagusi izan da Getarian jokaturako Euskadiko txapelketan

Zortzi ontzi izan dira lehian eta 'Lugañene'-k laugarrenez irabazi du lehiaketa

Txintxarri

Getariako uretan jokatu zen hilaren 7an, Euskadiko txapelketa. Zortzi ontzi bildu ziren emakumezko mailan lehiatzeko eta astebete lehenago gertatu modura, Donostia Arraun Lagunak izan zen garaile; laugarrenez lortu du bandera.

Aiora Belartietia herritarra kide duen *Lugañene*-k bigarren txandan parte hartu zuen. San Juan, Kaiku eta Deusto izan ziren bere aurkariak.

Lehen txandako Tolosaldearen marka (11.31,11) ondu behar zuen Donostiako taldeak eta horretarako jardun ziren eskifaiako kideak.

Ziabogan lau segundoko aldea atera zion Arraunek Tolosaldeari eta 10 segundo bere txandako bigarren izan zen San Juani. Bigarren luzean ere fin aritu ziren eta 11.24,81 eginez, bandera irabazi zuten.

Madriren, hasiera

Atzerako kontaketa hasi da, Euskotren Ligako lehen jardunaldia hilaren 28an jokaturako da. Ezohiko kokalekuan izango da, gainera, Buitrago del Lozoyako urtegi (Madril). Bertan Isabel



Donostia Arraun Lagunak, Euskadiko txapelketako banderarekin. EAF_FVR

II. kanala 175. urteurrena bandera eskuratzeko lehiatuko dute aurten liga osatzen duten zortzi ontziak: Astillero, Donostia Arraun Lagunak, Nortindal Donostiarra, Hibaika, Orio, San Juan, Tolosaldea eta Zumaia. Eta, azken urtean bezala, Donostiako bi ordezkarietan izango da herritarrik: Aiora Belartietia *Lugañene*-n eta Enara Arruti *Bantxa*-n.

Eta uztailen zein abuztuaren zehar, asteburuko bina jardunaldi izango dituzte eskifaiak. Atsedenez ez dute izango Zarauzko

azken bi saioetara arte, hori abuztuaren 22an eta 23an izango da. Euskadiko uretan borrokatzeaz gain, Castro-Urdiales (Kantabria) eta Chapelala zein Bueu herrietan (Galizia) ere izango dira nor baino nor ontziak.

Denboraldiaurreari amaiera emateko, ordea, beste hitzordu bat izango du Donostia Arraun Lagunak, Espainiako txapelketa. Hilaren 13an eta 14an, Meira-Moaña (Galizia) lehiatuko da eta bi jardunaldik osatuko dute; lehenean kanporaketak jokaturako dira eta bigarrean, finalak.

TXIRRINDULARITZA

Xabat Martin podiumeko bigarren tokira igo da Etxebarriko Sari Nagusian

Txintxarri

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatutako Gazte-oxoak txapelketako bigarren saioa lehiatu zen hilaren 6an Etxebarri (Bizkaia). Andoingo Txirrindulari Eskolako herrikideak Etxebarriko Sari Nagusian parte hartu zuten eta Xabat Martin gaztea bigarren sailkatu zuen.

Martin lehen postuetan mantendu zen lasterketa osoan zehar eta esprintean Dimaq Ipar Maquina taldeko Daniek Diazek bakarrik gainditu zuen.

Ez zen Bizkaiko proba amaitu zuen herritar bakarra izan; Unax Guisadok 01.32.33 egin zuen. Dario Gomezek, aldiz, ezin izan zuen helmuga gainditu.

Astebete lehenago, Murietan (Nafarroa) hamargarren postuan amaitu zuen Martin herritarra. Azken itzulian, pelotoian egon zen eroriko baten ondorioz, lurrean oina jarri behar izan zuen eta denbora galdu zuen. Hala ere, postuak irabazten joan zen eta lehen hamarren artean bukatzea lortu zuen.

Guisadok ere erorikoaren ondorioak sufritu zituen. Nahiz eta atzean geratu, pelotoira iritsi eta proba amaitu zuen. Gomez, ordea, azken itzulian kanporatua izan zen.

Euskadiko txapelketa

Eta proba horien ostean, hilaren 13an eta 14an, herriko txirrindulari



Martin, podiumean. MA MARTIN

gulari gazteek hitzordu garrantzitsuei egingo diete aurre; Euskadiko erlojupeko zein errepideko txapelketak. Lehen egunean lehiatuko da erlojupekoa eta bigarrean, lasterketa.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 13

JOSE MARTIJA TORNEOA

- Los Chavales de Martija elkarteak antolatutako Jose Martija torneo jokaturako dute hamabi taldek. Egun osoa. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

LARUNBATA 13

GAZTEEN EUSKAL KOPA, 1/2

- Makax AFKK - Eguzki Lekuona T. 16.00. Bilbo, Bizkaian.

OSTIRALA 12/OSTEGUNA 18

SPJ TXAPELKETA

- SPJ txapelketako multzoko faseko partidak jokaturako dira. Michelin kirol gunean/ Maialen Chourraut kirol.

PILOTA

OSTIRALA 12

ESKUZ, BAN., 4 1/2, K. 3. MAILA, 1/2

- Gaztelupe - Intza KE (Maiz) 18.30. 1. partida. Zaldibin.

ASTEARTEA 16

SANTA ANA PALA TXAPELKETA

- Bueno/Urkola - Rekondo/Bazkez 19.00. Loidibarren pil.

ASTEAZKENA 17

SANTA ANA PALA TXAPELKETA

- Etxezarreta/Sorrondegi - Mendizabal/Urruzmendi 19.30. Loidibarren pil.

OSTEGUNA 18

SANTA ANA PALA TXAPELKETA

- Jauregi/JM Arteaga - Odriozola/Ollokiegi 19.00. Loidibarren pil.

ARRAUNA

LARUNBATA 13/IGANDEA 14

ESPAINIAKO TXAPELKETA

- Donostia Arraun Lagunak-ek Espainiako txapelketa lehiatuko du. Meira-Moaña, Galizian.

IGERIKETA

LARUNBATA 13/IGANDEA 14

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

- Buruntzaldea IKTko igerilariak infantil mailako Gipuzkoako txapelketan ariko dira igerian. Usabal kirol., Tolosan.

ATLETISMOA

LARUNBATA 13

PLP

- Lasarte-Oriako atleten Proba libreko saioa izango dute. 17.00. Arrasaten.

KLUBEN ESPAINIAKO LIGA

- Herriko kirolariak dituzten Atletico San Sebastian eta Valencia CA Espainiako ligako finalean izango dira lehian. Egun osoa. Iruña (Nafarroa).

TXIRRINDULARITZA

LARUNBATA 13/IGANDEA 14

- Andoingo Txirrindularitza Eskolako herritarrek erlojupeko zein errepideko Euskadiko txapelketak lehiatuko dituzte. Bergaran/Oñatin.

PIRAGUISMOA

OSTIRALA 12/IGANDEA 14

MUNDUKO KOPA

- Maialen Chourrautek Munduko kopako hirugarren saioa lehiatuko du. Augsburg, Alemanian.

DENBORALDI AMAIERA

OSTIRALA 12

LOKE JUDO

- LOKEko judoek ikasturte amaierako erakustaldia egingo dute. 18.00. Maialen Chourraut kirol.

LARUNBATA 13

LOKE GIMNASTIKA ERRITMIKOA

- Gimnasi erritmikoko kideek zirkuan murgilduko dira ikasturteari amaiera emateko. 16.00. Maialen Chourraut kirol.

PIRAGUISMOA

Seigarren postua, Pragan



JAROSLAV SVOBODA

Maialen Chourraut herritarra berriro Munduko Kopako K1 finalerako sailkatu zen hilaren 5ean, Pragan (Txekiar Errepublika). Kanporaketetan jaitziera garbia eginez, bosgarren postua eskuratu zuen. Finalean, aldiz, hiru atetan arazoak izan zituen eta sei puntuko zigorra jaso zuen. Hirugarren postuagatik borrokatu zuen, baina azkenean, seigarren amaitu zuen. Bi egun geroago, Kayak krosetako lehiaketa final laurdenetara iritsi zen.

FUTBOLA

Gorengo Mailako taldeak borrokatu arren, ezin izan du igoera lortu Ordizian

Jon Iruretak ez du Gorengo Mailako entrenatzaile lanetan jarraituko

Txintxarri

Ez da posible izan. Ostadar SKT-ko Gorengo Mailako taldeak ezin izan zuen igoerako kanporaketa irabazi Altamiran; 2-1 gailendu zen Ordizia. Talde urdin-beltzak herritarren babes izan zuen Ordizian; zaletuek betetako autobus bat eta kotxe ugari ere hurbildu ziren partidara.

Joaneko husnako berdinketaren ostean, bi taldeek igoera emango zien postua zuten jokoan eta epaileak hasiera ematearekin batera, hasi zen lehia estua. Bi taldeek aukerak sortu zituzten ate aurrean, baina ordiziarrek hobeto baliatu zituzten eta atse-denaldira 2-0 joan ziren.

Bigarren zatian, gogotsu atera zen Ostadar. Baloia ongi mugituz, aurkariaren atera iritsi zen behin baino gehiagotan eta azkenean, errenta murriztu zuen gola eginez.

Azken minutuetan ere partida berdintzeko jokaldiak sortu zituzten urdin-beltzek baina baloia ez zen sarera sartu eta Ordiziarrek lortu zuten saria.

Iruretaren agurra

Gorengo Mailako taldeak, gainera, beste berri bat dakar. Azken hiru urteetan entrenatzaile lanetan izan den Jon Iruretak Ostadar SKT utziko du. Bere sare sozialetan eman du berria: "Nire bizitzaren zati garrantzitsu bat izan denari, agur esateko uea iritsi da".

Entrenatzaileak eskerrak eman dizkio Ostadar SKTri aukera



Ostadar eta Ordiziaren arteko joaneko neurketako irudia. TXEMA VALLES

emateagatik, baita "nire alboan egon zaretzen guztioi".

Halaber, hiru urte horietan zoriontsu izan dela eta bidaia

polita, momentu ahaztezinez beteta eta pertsona zoragarriez inguratuta izan dela nabarmen-tzen du.

Hamabi talde, Jose Martija Torneoan

Michelin kirol guneak IX. Jose Martija torneo hartuko du hilaren 13an. Los Chavales de Martija elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz, 2015. urtean jaiotako alebin mailako hamabi ekipo batuko ditu aurten txapelketan. Egun osoz futbol partidez gozatu ahalgo dute eta Champions League edo Europa Leagueko garaikurra irabazteko lehiatuko dira guztiak.

Ostadar SKT eta Texas

Lasartearra CF herriko taldeetako harrobiko ordezkarienez gain, Real Sociedad, Sanse, SD Eibar, Añorga KKE, Antiguoko, Real Union, Martutene KE, Racing Club, Billabona eta Euskalduna Andoaindarra izango dira Michelin kirol guneko zelaian.

Launa taldeko hiru multzotan banatuko dituzte goizean eta horietako bakoitzeko lehen biak zein bi hirugarren hoberenak Champions Leaguerako txartela eskuratuko dute; gainerakoak Europa Leaguean arituko dira. Arratsaldean jokatuko dute bi lehiaketa horien azken fasea. Sari banaketa baino lehen opariak zozkatuko dira.



lazo partida bat. TXINTXARRI

Herritar batzuk aintzatetsi dituzte Gipuzkoako futbol sarietan

Gipuzkoako Futbol Federazioak Gipuzkoako Futbolaren Gala egin zuen, hilaren 5ean, Irungo Ficoban. 2025-2026 denboraldian bere ibilbide, lan edo jardueragatik garrantzia izan duten pertsona, klub eta erakunde sariak banatu zizkien erakundeak eta horien artean, Lasarte-Oriako herritarrak izan ziren.

Apirilaren 18an Errege Kopa irabazteagatik Realeko gizonen lehen taldeak jaso zuen oroigarrietako bat. Talde horren parte izan ziren Jon

Martin Vicente eta Lander Astiazaran Escabias herritarrak.

Bestetik, Añorga KKEko jokalarizaskun San Aniceto Orbegozo herritarrak futboleko urteetako ibilbideagatik jaso zuen aintzatespena.

Eta aurreko zenbakian aurreratu moduan, Mikel Etxarri Sasiaini Gipuzkoako Futbolaren Mito saria eman zion federazioak. Ekitaldian herritarrak entrenatzaile eta lurraldeko teknikarien irakasle egindako ibilbide luzea nabarmendu zuten; Etxarrik



Saritu guztiek talde argazkia atera zuten. GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

hainbat klub zuzendu zituen eta Euskal Selekzioa ere entrenatu du. Horrez gain, Gipuzkoako

Entrenatzaile Eskolari Mikel Etxarriren izena jarriko diotela ere gogora ekarri dute.

PILOTA

Itxaso Iparragirrek Nafarroako Foru Erkidegoko txapela jantzi du

Txintxarri

Nafarroako Foru Erkidegoko V. Torneoko finalak jokatu ziren, hilaren 6an, Iruñako Labrit pilotalekuan (Nafarroa). Esku pilotako binakako promesa mailan, Lasarte-Oriako ordezkari bat izan zen jokoan, Itxaso Iparragirre, eta Amaiur Martinez nafarrarekin bat eginda, txapela eramane zuten.

Maiatzaren 8an hasi zen lehiaketa eta Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Iparraldeko pilotariek parte hartu zuten.

Kanporaketaz kanporaketa herritarren bikoak aurrera egin eta hilaren 6ko finalera iritsi zen. Azken lehian, Arruti eta Gomez izan zituzten aurrez aurre eta partida borrokatuan, 13-18 gailendu ziren.



Martinez eta Iparragirre. I. IPARRAGIRRE

Lau eta erdian aurrera

Intzako pilotariek ere Lau eta erdiko txapelketako finalerara

ko bidean dira. Oier Elola eta Ekhi Maizek euren mailako lehian aurrera egin dute euren aurkariak gaingituz; Kimetz Atorrasagasti ere sailkapena eskuratu du ez baitzen aurkaria agertu. Ikusi taula.

Maizen kasuan, Kadete 3. mailako finalerdikoari aurre egingo dio; Gaztelupeko Armendariz izango du aurkari. Elolak eta Atorrasagastik, aldiz, Kadete 2. Mailako final laurdenak jokatuko dituzte LAPLEko Elorza eta Intxurreko Leoren aurka, hurrenez hurren.

ESKUZ, BINAKA, PROMESA

- Arruti/Gomez 13-18 Iparragirre/Martinez
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, KADETE 2. MAILA
- Intza KE (Atorrasagasti) 22-0 Hernani
- Ilunpe 17-22 Intza KE (Elola)
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, KADETE 3. MAILA
- Intza KE (Maiz) 22-9 Tolosa
- ESKUZ, BINAKA, UDABERRI, INFANTIL 1. MAILA
- Intza KE 16-18 Aretxabaleta 1

ARETO FUTBOLA

Eguzki Areto Futbol taldeko kideek, lan ederra Espainiako txapelketako lehen fasean

Gazteen mailako ordezkariak Euskal Kopako lau finala jokatuko du

Txintxarri

Eguzki Areto Futboleko ordezkariak hitzordu garrantzitsuak izan zituzten hilaren 5etik 7ra. Infantil zein kadete taldeak Cartagenan (Murtzian) eta Ourense (Galizia) izan ziren, hurrenez hurren, 14 eta 16 urtez azpiko Kluben arteko Espainiako txapelketako lehen fasean borrokan. Bestalde, gazteen mailako taldeak Euskal Kopako final laurdenari egin zion aurre etxean.

Espainiako txapelketako lehen faseari dagokionez, aurkari gogorak izan zituzten hori-beltzek euren multzoetan. Eguzki Andatza tabernak Jimbee Cartagena, SE Alcudia Futsal (Balear Uharteak), AD San Juan (Nafarroa) eta Colo Colo Entrerrios Automatizacion (Aragoi) izan zituen aurrez aurre. Eguzki Escaleroilla tabernaren aurkariak, aldiz, Academia Futsal Ourense (Galizia), CFS Ribera (Nafarroa), Malta 97 (Kanaria Uharteak) eta CD Nueva Elda FS (Valentziako Erkidegoa) izan ziren.

Lasarte-Oriako infantil zein kadeteak ongi jardun eta kantxan guztia eman arren, partida bakarra irabazi ahal izan zuten; kadeteek Malta 97 7-8 gainditu



Goian, infantil taldea eta behean, kadete taldea eta senideak. EGUZKI AF

zuten neurketa borrokatuan. Ikusi koadroa.

Lauko finalean

Eguzki Lekuona tailerrak taldeak, aldiz, Gazteen Mailako Euskadiko Kopako lau finalerako sailkapena eskuratu zuen, Maialen Chourraut kiroldegian. Bilboko Otxartaberen aurka neurtu zituzten indarrak hori-beltzek eta irabazi egin zuten.

Partida borrokatua izan zen. Aurkako emaitza bitan berdindu behar izan zuten etxekoek eta 3-2koarekin aurreratzea lortu zuten. Eguzkik erasoan ja-

rraitu zuen eta norgehiagokako azken zatian, hiru gol egin zituen errenta handituta. Bizkaitarrek aldea murriztu zuten epaileak txistua jo baino lehen, baina 6-4koa izan zen azken emaitza.

Hilaren 13an eta 14an, lau finala jokatuko dute gazte mailako ordezkariak Bilbon (Bizkaia). Finalerdian gipuzkoarren arteko lehia izango da; Makax izango dute aurkari eta garaituz gero, finala jokatuko dute. Horrela izanez gero, aurkaria Calasanz gasteiztarren eta Kuku-yaga bizkaitarraren arteko neurketan erabakiko da.

EUSKAL KOPA, GAZTEEN MAILA

• Eguzki Lekuona tailerrak 6-4 Bilboko Otxartabe

16 URTEZ AZPIKO LEHEN FASEA

- Academia Futsal Ourense 5-3 Eguzki AF
- CFS Ribera Navarra 5-9 Eguzki AF
- Eguzki AF 2-22 Club Nueva Elda FS
- Malta 97 7-8 Eguzki AF

14 URTEZ AZPIKO LEHEN FASEA

- Jimbee Cartagena 11-1 Eguzki AF
- Colo Colo Entrerrios Automatizacion 14-0 Eguzki AF
- Eguzki AF 3-4 AD San Juan
- Eguzki AF 0-9 SE Alcudia Futsal

Baloia martxan jarriko da

Gaur, hilaren 12an, SPJ txapelketako baloia giratzen hasiko da. 32 taldek lehiari aurre egingo diote eta 25eko finalean egoteko lehiatuko dira guztiak.

Maiatzaren 29an, multzoetako faseko taldeak zehaztu ziren eta ekipoek euren aurkariak ezagutu zituzten.

Aipatu modura gaur hasiko dute lehen fase hori eta igandera bitartean, bi jardunaldi jokatuko dituzte. Gaurko 17:00etan

Michelin kirol guneko pistan lehen partida lehiatuko da eta ostean, beste sei neurketaz ere gozatuko dute gunera gerturatzen diren herritarrek. Hilaren 14an, aldiz, Michelin eta Maialen Chourraut kiroldegian izango dira, 09:15etik aurrera.

Hilaren 16an, 17an eta 18an Michelinen eta hilaren 19an, kiroldegian ere jokatuko dira hurrengo jardunaldiak.

Talde bakoitzeko hoberenek bakarrik lortuko du azken faserako sailkapena; hilaren 20tik aurrera, kanporaketa sistemaren bidez jokatuko da eta horrela, finaleko taldeak zehaztuko dira.



lazio final laurdeneko irudia. SPJ TX.

ERRUGBIA

Alex Saleta herritarra Ohorezko Mailako txapeldun izan da VRAC-ekin

Gipuzkoa Sortzen proiektuak ez du aurrera egingo eta Beltzak RTk Errugbi Eskola bere gain hartuko du

Txintxarri

Beltzak RTko kideek zelaian zein zelaitik kanpo berri garrantzitsuak ekarri dizkigute.

Harrobiko kide Alex Saletak Ohorezko Mailako txapeldun izan da VRAC Quesos Entrepinares taldearekin. Herritarrek Aparejadores Burgosen aurkako finala jokatzerik izan ez zuen arren, bere taldea babesten egon zen.

Lehia zirrargarria izan zen eta azken minutuko zigor ostiko bati esker, 25-24 gailendu zen Saletaren taldea.

Jarraipenik ez

Ohorezko Mailan ez da Beltzakeko talderik izan, baina Elite mailarako igoera fasea jokatu du aurten Gipuzkoa Sortzen proiektuko taldeak. Duela pare bat urte "talde sendoago eta indartsuago bat osatzeko" asmoz jarri zuten martxan Beltzak eta Zarautz RT taldeek Donostiako Bera Bera taldeak ekimena eta proiektuak aurrera egingo ez zuela jakitera eman dute beltzek.

Senior mailetako Bera Bera eta Atletico San Sebastian taldeak batuko dituen Donostia Rugby



Saleta, dominarekin, eta Beltzak RTko Euken Alkorta saribanaketaren ostean. A. SALETA

aurkeztu berri dute eta Beltzak RT eta Zarautz RTko kideak horiekin negoziaketetan ari direla jakitera eman digu errugbi taldeko kide Manu Pelaezek: "Lau taldeetako senior kategoriako taldeak elkarrekin lehia-

tzeko aukera dago, baina hizketan ari gara. Hilabete honetan zehar akordioa itxi beharko litzateke. Baina oraindik ez dago ezer ziurra".

Horrela izanez gero, Ohorezko B Mailako zein Euskal Ligako

I. eta II. Mailan lehiatuko litzateke proiektu berria.

Errugbia probatzeko

Bestalde, errugbia probatu nahi dutenen 2012tik 2019ra jaiotako haur eta gaztetxoei zuzendutako entrenamendu irekiak egiten ari da taldea hilabete zehar. Saioak astelehenean, 19:00etatik 20:30era dira Atsobakar zelaian. Guztiz doakoak dira eta eta entrenamenduen ostean hirugarren denbora izango dute.

Jarraituz gero, jokalar horiek hurrengo denboraldian Beltzak RTk zuzendutako Errugbi Eskolako kide izango dira. Pelaezek azaldu modura, "orain arte Ostadar SKTren babesarekin egin dugu lan eskola mailan, baina zuzendaritza berriak eskola gure gain hartzea erabaki du eta pausoak eman ditugu horretarako".

ATLETISMOA

Herriko atletek ongi aurre egin diete maila ezberdinetako lehiaketei

Euskadiko zein 16 urtez azpiko Espainiako txapelketetan izan dira lehian

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak bi hitzorduri egin zieten aurre, hilaren 6an eta 7an eta ederki jardun ziren; domina bat jantzi zuten Euskadiko txapelketan.

Durangoko (Bizkaia) Landako pistan lehiatu zen Euskadiko lehiaketa eta herriko ordezkari-tza zabala izan zen. Ostadar SKTko sei kidek parte hartu zuten: Iraia Alkorta, Eider Redondo, Irati Gallego, Nahia Garcia, Maider Rekondo eta Oihana Igarritz. Eta horiez gain, Atletico San Sebastian taldeko Nerea Eugi eta Hodei Murgiondo, Real Sociedadeko Alex Alkain eta BAT taldeko Julen Goenaga ere izan ziren pistan.

Herritarrek proba ezberdinetako finaletan izan ziren borrokan eta disko jaurtiketan lortu zen txapelketatoko domina bakarra; Ostadarreko Maider Rekondok



Amelie Flores (erdian) lehiarako prest, Ostadar SKTko prestatzaileekin. OSTADAR ATLETISMOA

brontzezko domina eskuratu zuen, 37,40 metroko markarekin. Lehiaketa berean, zazpigarren izan zen taldekide Oihana Igarritz, 31,07 m. Altuera jauzian, aldiz, Ostadarreko Eider Redondo zazpigarren izan zen, 1,55 m.

Pertika jauzian, 3,40 metroak ezin gaitituta, podiumeko ata-

rian geratu zen Atletico San Sebastianeko Hodei Murgiondo eta taldekide Nerea Eugik 100 m. zein 200 m. lasterketako finaleran zazpigarren eta bosgarren amaitu zuen, hurrenez hurren.

Lehen postuetan izan zen baita ere BATEko Julen Goenaga; 800 metroko lasterketan, bosga-

rren izan zen eta denboraldiko bere marka ondu zuen, 01.58,56.

Ostadar SKTko arduradunak pozarren daude euren atletak egindako lehiaketarekin. Gainera, Eider Redondo edo Nahia Garcia bezalako kirolari gazteak lehian izan direla nabarmendu dute.

Espainiako txapelketa

Ostadar SKTko Amelie Flores eta Real Sociedadeko Alaia Romero herritarrek, aldiz, Alacanteko (Valentziako Erkidegoa) La Nucia herrian 16 urtez azpiko Espainiako txapelketan lehian izan ziren. Euren probetako finalerako sailkatu ez baziren ere, jardun ederra egin zuten.

Floresek 100 metro hesi lasterketako kanporaketan parte hartu zuen eta 15,74 marka egin zuen. Ostadar SKTko entrenatzaileak pozarren daude egindako probarekin: "Ameliek lehen urtea du Espainiako txapelketa batean eta oso ondo lehiatu da. Gainera, haizea izan zuen aurka, baina ongi egin zion aurre egoe-rari".

Romerok, aldiz, 100 metroko kanporaketan egin zuen korrika eta 12,84 markarekin.

Korrikalariak, lehiatik lehiara

Lasarte-Oriako korrikalariak errepidean zein mendian izan ziren lehian, hilaren 6an eta 7an. Asko Donostian egindako Binter Night Run porban parte hartu zuten eta horien artean azkarrena Jon Presa (32.06) izan zen; seigarren sailkatu zen. EH Mendi Erronka, Intxisu Trail, Gasteizko Mendiak, Irun 5k Santo Foundation edo Laudioko krosa, horietan ere izan zen herritarrik.

Lasarte-Oria Bai! krosa

Bestalde, urriaren 25ean jokatu den 29. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia izen ematea martxan jarri du Ostadar SKT. Korrikalari zein ipar martxalari, inskripzioa oraingoz elkarteko orrialdetik bakarrik egin daiteke.

IGERIKETA

Buruntzaldea IKTko kideak txapelketaz txapelketa maila onean lehiatu dira

Gipuzkoako Open Sarian eta Udako Sarian lehiatu dira hainbat igerilari

Txintxarri

Lasarte-Oria Saria zein Gipuzkoako Open eta Udako Sariak. Azken bi asteetan Buruntzaldea IKTko kideek ez dute atsedenik izan.

Maiatzaren 30ean lehiatu zen Buruntzaldea IKT antolatutako Lasarte-Oria Saria. Pertsonen saria. Taldeko kideak zein Igar-tza IKE eta Konportako igerilariak izan ziren uretan. Giro ederrean proba ezberdinak burutu ziren.

Hilaren 6an eta 7an, aldiz, Gipuzkoako Open Sarian izan ziren igerian taldeko hainbat kide eta Ane Meyer estilo libreko 50 m. eta 100 m. probetako B eta C finaletan izan zen igerian, hurrenez hurren.

Igeriketa elkarteko kideez gain, Fortuna KEko Kimetz de La Cruz eta Mayi Gorostegui zein Tolosaldea IKT Patxi Arzalluz



Lasarte-Oria sari irudia. TXINTXARRI

herritarrek ere parte hartu zuten lehiaketan. De La Cruzek 100 m. eta 200 m. bizkar lehiaketako C eta B finaletan izan zen borrokan.

Hilaren 6an, gainera, Gipuzkoako Udako saria ere jokatu

zen, Oñatin eta lau ordezkari izan zituen herriko taldeak. Nara Larretxeak eta Aiala Errok 50 m. librean aritu ziren eta Izaro Bautista eta June Apeztegia 100 m. lau estiloei egin zieten aurre.

Lehia ez da amaitu, ordea. Buruntzaldea IKTko Nora Berra, Aiala Erro eta Itxaso Iparragirre hilaren 13an, infantil mailako Gipuzkoako txapelketan lehiatuko dira.

Ate Irekiak

Bestalde, hurrengo denboraldia prestatzen hasi da Buruntzaldea IKT taldea eta ate irekien saioak egingo ditu bi egoitzetan, Andoain eta Lasarte-Oria. Hilaren 22an, 23an eta 24an, 18:00etan, izango dira Maialen Chourraut kiroldegian egingo diren entrenamenduak. Parte hartzeko kirol elkartearen webgunean izen eman behar da.

IKASTURTE AMAIERA

LOKEko judokak eta gimnastak, ikasturteari amaierako emateko prest

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko Judo eta Gimnastika erritmiko-ko atalek ikasturteari amaiera emango diote gaur, hilaren 12an eta 13an. Elkarteko kideen eskutik, Maialen Chourraut kiroldegiko kantxa tatami eta tapiz bihurtuko da ordu batzuek.

Judokak izango dira lehenak denboraldiari agur esatean. Gaur, hilaren 12a, batuko dira. Maila guztietako kirolariek urtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute ariketa ezberdinak eta borroka eginez. Amaitzean guztiek izango dute saria eta ezustekoren bat ere iragarri dute.

Hala ere, judoko arduradun Gorka Aristegik azaldu modura, oraindik lehiaketa bat dute faltan senior kategoriako kirolariek, Bansanser Torneo. Santanderren (Kantabria) hilaren 20an lehiatuko da eta taldekako txapelketa da.

Zirkua tapizean

Egun bat geroago, gimnasten txanda izango da. 16:00etan ha-

sita, zirkuko giroan murgilduko dituzte guraso eta senideak. Beroketak egin ostean, tresna ezberdinekin edo esku hutsik urtean zehar landutako koreografiak dantzatuko dituzte atala osatzen duten haur eta gazte- txoek.

Pasio, magia eta poztasunez betetako emanaldia iragarri dute LOKEko kideek.



Lasarte-Oria sari irudia. TXINTXARRI

ZORION AGURRAK



Laura
Zorionak printzesa! 10 urte dagoeneko. Hain nortasun polita duzu... ez utzi gure egunak zure irribarrearekin argitzeari. Infinitu maite zaitugu aita, ama eta Pedro.



Amets
Zorionak Amets!!! 9 urte bete dituzu!! Jarraitu berezia izaten, eta futbolari eta pilotari bikaina izaten. Ziur, primeran ospatuko dugula zure urtebetzea. Txokolatezko 9 muxu handi handi, familia osoaren partez.

IRAGARKI SAILKATUAK

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUAN HARTU

Lasarte-Oria gela bat alokatu nahi dituzte uzta-laren 15etik abuztuaren bukaera arte (euskalduna, Madrilan lan egiten duen pertsona). Harremanetako zenbakia, 687 35 50 95.

LANA

ESKAERA

Emakumea lan bila. Etxeko lanetarako, adineko pertsonak zaintzeko, bulegoak garbitzeko... Externa moduan. Gizarte eta Osasun Laguntzako Ikastaroko Profesionaltasun Agiria dut. Esperientzia. Edozein ordutegitan lan egiteko prest nago, gauez ere bai. Harremanetako zenbakia, 676 28 22 06.

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48

publizitatea@ttakun.eus

www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta txintxarri.eus/zorionagurrak helbidean sartu.

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu

GUTUNAK

32

XABIER CARRIL

Astearteko albistearen dugu: "Langile bat hil da lan-istripuz Laudion" (Gedar). Lantegiko labe garaia konpontzen ari zela, labeak eztanda egin, eta behargina zendu egin zen. Beste bat. Honezkeroko hogeita hamabi dira aurten Euskal Herriko lantokietan zein lantokira bidean hildakoak; hogeita hamabi behargin hilik, hogeita hamabi bizitza, hogeita hamabi lagun, hogeita hamabi guraso, hogeita hamabi ahizpa, hogeita hamabi lehengusu. 32.

Horixe izan da, hain zuzen ere, albistegietan hartu duten batez besteko segundo kopurua: hogeita hamabi segundo gutxi gorabehera, azken ordukoen bat edo beste tarteko, akaso;

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 12	DE MIGUEL
LARUNBATA, 13	GIL
IGANDEA, 14	GIL
ASTELEHENA, 15	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 16	KNIESE
ASTEAZKENA, 17	KNIESE
OSTEGUNA, 18	GIL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO

22:00etatik 09:00etara

CASTILLA-LARBURU farmazia
 Urbieta kalea 7, / 94-55 29 41

beharbada, hogeita hamabi karaktereko txioren bat izango zuten hedabideren batek argitaratua edo hogeita hamabi hitzeko zutaberen bat paperezko aleren batean.

Ez zuten, ez, albistegirik irekiko. Tertulia saio osoak ere ez zituzten emango haien inguruan. Ziurrenik, ez zuten ezein egunkariaren azala okupatuko, ez aintzatespen ofizialik edo jarraipen sakonik izango. Ez zuten eresidun hileta jendetsurik edo hil-kapera apaindurik izango, ezta bisitan joandako alkate edo legebiltzarkiderik ere. Dolu-aldi ofizialik ere ez zuten apenas izango, ez bada haien herrian egun batez-edo haga erdira jaitziko banderaren batek irudikatutakoa. Egin egingo zuen auhen enpresariaren batek, auskalo -jarraian langilea

ordeztu eta aurrera jarraitzeko, noski, inolako erantzukizunik jasan behar izan gabe.

Honezkeroko hogeita hamabi dira aurten Euskal Herriko lantokietan zein lantokira bidean hildakoak; hogeita hamabi dira gure hildakoak -eta nago ez ote diren aurrerantzean ere gehiago izango.

"Goian egon" nahi dutenak goian beude, eta besteei lurra arin bekie.

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etortzea (Geltoki kalea, 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.



Hurrengo TXINTXARRI,
 SANPEDROETAKO BEREZIA
 hilaren 19an

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
 Geltoki kalea 4 (behea)
 20160 Lasarte-Oria
 G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre Etxeberria,
 Iñigo Gonzalez Sarobe,
 Maddi Noriega Zaldua
 eta Lierni Apaolaza
 Urdanpilleta.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Lierni Rekondo,
 Gorka Alvarez, Aizpea
 Amas, Maitane Rebe, Jexux
 Artetxe, Oihane Puertas
 eta Pili Ormazabal.

Banatzaileak

Nora Navarro, Aimar
 Hernandez, Gari Iraola,
 Axier Iraola, Eneko Sanchez
 eta Saioa Molina.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
 WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea, 4
 Tel.: 943-37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
 Lege Gordailua:
 SS-513/93
 ISSN: 1134-0053
 Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA

- **Jardunaldia** Buruntzaldeko Jardunaldi Politikoak ekimenaren baitako azken topaketa egingo dute: grafiti, mural eta soinu ekipo tailerra zein kontzertu akustikoa antolatu ditu eskualdeko GKS eragileak. Andatza plaza, 18:00etan.
- **Ospakizuna** Kukuka eskolako kideek 24. Antzerki eta Dantza Astearekin jarraituko dute. Sorkuntza saioa egingo dute. Sarrera, doan (gonbidapenekin). Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

LARUNBATA 13

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.

- **Ospakizuna** Kukuka eskolako kideek 24. Antzerki eta Dantza Astea itxiko dute jarduera hauekin:
12:00etan, Euskal Dantza Sorkuntza, kultur etxean.
14:00etan, bazkaria, Okendo plazan. Ostean, dantzaldia egingo dute.
- **Ospakizuna** Semblante Andaluz elkarteak 31. Rocioko Erromeriaren aurreneko eguna aurrera eramango du, Atsokabarren:
12:00etan, irekiera.
13:30etan, funky emanaldia.
14:30etan, bazkari herrikoia.
16:30etan, Concha Rociera koruaren emanaldia.
17:00etan, Concha Rociera dantza taldearen saioa.
17:30etan, Embrujo Andaluz-en emanaldia.
18:00etan, runba eskola, Amaia Gonzalez Caballero dantzariaren eskutik.
19:00etan, Asier eta Nerearen emanaldia.
19:30etan, dantza talde ugariaren emanaldiak.
20:30etan, tekno-flamenko saioa DJ Ina-ren eskutik.
- **Kontzertua** Ikasturte amaierako kontzertua egingo du Alboka Abesbatzak. Sarrera, doan.

Ama Brigitarren komentua, 19:30etik aurrera.

- **Kontzertua** Tirabira taldeak reggae akustiko eta interaktibo proposamena ekarriko du. Sarrera, doan. Jalgi kafe antzokia, 19:30ean.

IGANDEA 14

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Semblante Andaluz elkarteak 31. Rocioko Erromeriaren bigarren eguna aurrera eramango du:
11:30etan, meza rozieroa, Arantzazuko Ama parrokian. Semblante Rociero koruak girotuko du elizkizuna.
12:30etan, Rocioko Ama Birjina Atsokabarrea eramateko kalejira egingo dute, parrokiatik abiatuta.
14:00etan, ohorezko ardoa, agintari eta gonbidatuekin.
14:30etan, bazkari herrikoia.
16:30etan, Al Alba eta Jakaranda taldeen saioak.
17:00etan, Aljarafe eta Alborea taldeen emanaldiak.
17:30etan, Duende taldearen emanaldia.
18:00etan, Semblante Rociero koruaren emanaldia.
18:30etan, dantzaldia.
20:00etan, errifan zozketa eta sari banaketa.
20:30etan, Rocioko Ama Birjinari agurra.
21:00etan, festa amaiera.

- **Kontzertua** Ikasturte amaierako kontzertua egingo du Zero Sette Akordeoi Orkestrak. Sarrera, doan. Okendo plaza, 12:30ean.
- **Zinema** Haurrentzako saioan *Fleak* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduentzako saioan *El mago del Kremlin* filma emango dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

ASTEARTEA 16

LASARTE-ORIA

- **Hitzaldia** LGTBIQ+ egitarauaren barruan *Garen piztiaz beste. Hitz egin daiteke euskal transfeminismoaz?* hitzaldia emango dute Iñi Etxezarreta Toca eta Elene Lopetegui Oleak. Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.
- **Kontzertua** Ikasturte amaierako aurreneko kontzertua emango dute Udal Musika Eskolako ikasleek. Sarrera, doan (gonbidapenekin). Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.
- **Entsegua** Sanpedroetako Sorgin Dantza prestatzeko azken-aurreko saioa egingo dute (azkenekoa hilaren 18an izango da). Okendo plaza, 20:00etan. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberri institutuko patioan elkartuko dira.

ASTEAZKENA 17

LASARTE-ORIA

- **Kontzertua** Ikasturte amaierako bigarren kontzertua emango dute Udal Musika Eskolako ikasleek. Sarrera, doan (gonbidapenekin). Manuel Lekuona Kultur Etxea, 18:30ean.

OSTEGUNA 18

LASARTE-ORIA

- **Emanaldia** Udal Dantza Eskolako ikasleek ikasturte bukaerako dantzaldia egingo dute. Sarrera, doan

(gonbidapenekin). Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:30ean.

- **Literatura** Nahia Intxausti idazle herritarrak ondutako *Zainetatik zilarra* poema liburuan oinarritutako emanaldia egingo dute eta zenbait olerki erreztatuko dituzte musikaz girotuta. Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.
- **Entsegua** San Joan bezperako soka dantza prestatzeko azken saioa egingo dute, Erketz EDT taldeak antolatuta. Deialdi irekia dela gogorazi dute. Garaikoetxea-Landaberri ikastetxea, 19:00etan.

OSTIRALA 19

LASARTE-ORIA

- **Literatura** Laugarren saioa egingo du Kriseilu asanbladaren irakurle taldeak; Miguel Hernandez idazlearen hautatutako poemak landuko dituzte. Gaztelekua, 18:00etan.
- **Zinema** LGTBIQ+ egitarauaren barruan *La misteriosa mirada del flamenco* filma emango dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 20

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.
- **Emanaldia** Ikasturte bukaerako ikuskizuna erakutsiko dute Erketz EDT dantza taldeko kideek. Okendo plaza, 19:00etan.

ASTELEHENA 22

LASARTE-ORIA

- **Topaketa** Ikasturte amaierako ekitaldia egingo dute Borobileen elkarteak eta Xumela koruko kideek, elkarrekin. Jon Maia Soria bertsolari eta idazlea

gonbidatuko dute Euskal Herria XXI. mendean: identitatea, hizkuntza, herria... solasaldia ematera. Aurreratu dute hausnarketa tarte hori musikarekin uztartuko dutela, izan ere, *Itsasora begira* eta *Itsasoa gara* kantatuko dituzte elkarrekin. Gainera, grabatzen ari den filmaren trailerra proiektatuko du Maiak. Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

ASTEARTEA 23

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** San Joan bezpera ospatuko dute:
21:30etan, udaletxe zaharretik Andatza plazara abiatuko dira partaideak.
21:45etan, dantza ugari egingo dituzte. Emanaldi horiek musikaz girotuko dituzte Alboka Abesbatzak eta Zero Sette Akordeoi Orkestrak.
22:00etan, sua piztea.

Bileren egun, toki eta ordutegiak

Ttakun KEkoek udalekuei eta udako txokoei buruzko bilerak egingo dituzte Antonio Mercero aretoan:

Hilak 19, ostirala

HH3-HH4: erdaraz 17:00etan eta euskaraz 17:40etan.
HH5-LH2: euskaraz 18:20etan, Goizueta 19:00etan eta erdaraz 19:30etan.

Hilak 23, asteartea

LH3-LH6 Udako Txokoak: elebitan, 17:00etan.
Atxondo: 17:40ean.
Azkarate: 18:20ean.
Kanpaldiak DBH 1 eta 2: 19:00etan.
Kanpaldiak DBH 3 eta 4: 19:30ean.



TXINTXARRI

SUHARRI

XABI SANTXO JATETXEA

Tradizioa, zaporea eta gertutasuna

Jauregi bailara, GALARRETA 20120 HERNANI



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU LASARTEORIATAR GUZTIO!!



Ekainaren 23an,
SAN JOAN BEZPERA GAUA,
IREKITA egongo da



Ekainaren 29an SAN PEDRO
egunerako zure erreserba
egitera gonbidatzen zaitugu



943-33 56 95



www.suharrihernani.eus



ETORKIZUNEAN LANEAN

Ibilbidea zure esku

www.ehu.eus/ikasi



"Ikertzeak aldatzen zaitu.
Partekatzeak etorkizuna
aldatzen du"

Maren Martinez de Rituerto,
Kirol-hezitzaile fisikoa

Patxintxi sariak 2026

65 urtetik gorako
pertsonei maitagarri eta goxoenak

Bidali zure hautagaiak
ekainaren 14ra arte

Ttakuneko bulegoan,
kultura@ttakun.eus-era, 695 78 53 89,
Ttakuneko sare sozialetara
labur.eus/patxintxisariak2026

Sari banaketa San Pedroetan!

